

EUSKAL KOSTALDEA by GASTRONOMIKA.

Lurra eta itsasoaren, tradizioaren eta modernitatearen, eta zapoaren eta aroren arteko ibilbide bat.

Euskal kostaldean ezin hobe konbinatzen dira paisaiak, kultura eta itsasoarekiko lotura. Eta Euskadi Basque Country Grand TOUR esperientzia da hori guztia ezagutzeko modurik onena. Lurralde osoa zeharkatzen du 8 etapatan –horietako 4tan, euskal kostaldea–, eta aukera ematen du ingurune natural ikusgarri bat, xarma bereziko arrantza-herriak eta kultura-eskaintza handiko hiriburu zirragarriak miatu ahal izateko. Marinel-tradizioa gastronomian islatzen da, arrain freskoak eta txakolina protagonista direla, baita beste hainbat jardueratan ere, hala nola surfeari, itsasontziz egiten diren irteeretan, eta itsaslabar eta parke naturaletako ibilaldietan. Edo, besterik gabe, Kantauri itsasora begira dauden hondartzak ederretan. Euskal kostaldea Euskadi Basque Country GRAND TOURen bidez zeharkatzea, benetako esperientzia bat da.

EUSKADI
BASQUE COUNTRY
by Gastronomia



EUSKAL KOSTALDEKO UNESCOREN ONDAREA




unesco

Gizateriaren Munduko Ondarea:

- BIZKAIA ZUBIA Portugalete-Getxo
- PALEOLITOKO LABAR-ARTEA Santimamiñe / Ekain / Altxerri
- DONEJAKUE BIDEA. KOSTALDEKO BIDEA Ziortzako monasterioa (Markina-Xemein) Santiago katedrala (Bilbo)
- Urdaibai Basque Reserve
- Munduko Geoparkea. Euskal Kostaldeko Geoparkea
- Urpeko Kultura Ondarearen babespena ALBAOLA Itsas Kultur Faktoria (Pasaia)


7 Jatorria eta etorkizuna Muskiz - Bilbo 24 km

Arrantzaren eta industriaren tradizioak uztartzen dituen ibilbidea Ezkerraldean zehar. Eta bide-erdian, Bizkaiko zubi esekia.




1 Kostaldearen babespean Bilbo - Lekeitio 111,3 km

Kantauri itsasoaren ondoko ibilbide bat, itsaslabar ikusgarrietan, surf egiteko hondartzetan, arrantza-tradizioko herrietan eta itsasoko gutziak dastatzeko jatetxeetan.




2 Euskadi urdin eta berdea Lekeitio - Zarautz 89 km

Barrualderantz abiatuko gara, ibai eta mendien Euskadi berderantz, haran zabaletan ezkatzen diren baserri bakartien Euskadirantz.




2B Flyscharen ikuskizuna Deba - Zumaia 15 km

Euskal kostaldeko Geoparkea zeharkatuko dugu. Itsaslabar ikusgarrien eta hondartza basatien konbinazioa da, ingurune natural paregabe batean 60 milioi urteko historia geologikoa erakusten duena.



3 Atsegin handiz Zarautz - Donostia 92 km

Gipuzkoan gaude, txingarretan egindako arrainaren, meatze erromatarren eta itsaso ondoko mendien lurraldean; ukitu veneziarra duen herri bat ere aurkituko dugu bertan. Eta ez dezagun ahaztu Donostia, ezta bertan aurkituko ditugun pintxoak eta Kontxa hondartza famatuan har ditzakegun bainuak ere.



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

GRAND
TOUR

EUSKAL KOSTALDEA

zure modura

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

GRAND
TOUR

www.euskadibasquecountrygrandtour.eus/eu
#visiteuskadi

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



EUSKADI BASQUE COUNTRY Gastronomia

EUSKAL KOSTALDEA ITSAS ZAPOREAK

Arrantzaleek porturatuak duten produktu freskoa euskal gastronomiaren zutabeetako bat da; izan ere, lehenagorik elikatzen dira portuetako jatek ere, erretetik, inguru osoa itsasoaren, parrillen eta arrain freskoen usainez betetzen dutenak. Euskal kostaldeko mendebaldeko muturrean dauden Zierbenatik Frantziako mugan dauden Hondarribiraino, gastronomiaren esperientzia paregabea. Bilatu Euskadi Gastronomika zigilua, kalitatezko establezimenduen eta eskaintza enogastronomikoaren bermea da eta.



Euskal kostaldeko plater eta errezeta tipikoak

Bakailaoa pil-pilean, euskal enezetarik tradizionaletako bat. Bilbok plater enblematikoa da. Saltsa da haren ezaugarri nagusia: olio eta bakailaoaren gelatina lotuz lorzen den emultsio eder eta zaporetsua.



euskadigastronomia.eus



EUSKADIKO ARRANTZA-PORTUAK

Zierbena
Santurtzi
Plentzia
Armintza
Bermeo
Mundaka
Elantxobe
Ea
Lekeitio

Ondarroa
Mutriku
Deba
Zumaia
Getaria
Orio
Donostia
Pasaia
Hondarribia

ITSASOA, MAHAI GAINEAN

Euskal gastronomiaren ikono bihurtu diren 10 marineler plater:

- Bakailaoa pil-pilean
- Bakailaoa bizkaitar erara
- Marmitakoa
- Legatza saltsa berdean
- Angulak
- Hegaluzzea tomatearekin
- Txangurrua
- Txipiroiak beren tintan
- Kokotxak
- Zurrurutuna



Arrantza-herrietan, hala nola Getarian, Orion eta Santurtzin, parrillari txingarretan erretako **bisigu, errebolu, zapo, lupia** edo sardinen usaina darie.

PARRILLAN ERRETA



KONTSERBA- FABRIKAK

Kontserba-industria arrantza-munduari hertsiki lotuta dago, hegazu eta antxoia produktu izartzat dituela. Hona hemen bertako produktuen ezaugarriak eta dastatzeko aukera batzuk.



- Berdel Eguna:** Mutriku (apirila)
- Antxoia Eguna:** Ondarroa (maiatza)
- Antxoia Eguna:** Getaria (maiatza)
- Arrain Azoka:** Bermeo (maiatza)
- Bisiguaren Festa:** Orio (uztaila)
- Sardina Eguna:** Santurtzi (uztaila)
- Hegaluzearen azoka:** Lekeitio (uztaila)
- Olagarro Eguna:** Zumaia (iraila)
- Kantauri Fest:** Zierbena (urria)

TXAKOLINAREN LURRALDEA

UZTARTZE PERFEKTUA

Ardo zuri fresko horrek, txinparta apur bat eta azidotasun txiki bat dituen, mahairik zorrotzenak ere konkistatu ditu. Hondarribi zuri mahatsarekin egiten da, eta ezin hobe da arrainak eta hasierako platerak laguntzeko. Hiru jatorri-deituratan ekoizten da: Getariako Txakolina, Bizkaitxo Txakolina eta Arabako Txakolina. Hirurek dute klima atlantikoaren, baina bi lehenak baino ez dira lantzen kostaldeko mendi-magaletan. Ardo egiten duten herri eta upelgeti nagusiak bisitatu, kostaldeko paisaiak eta arrantza-hiribilduen xarmaz gozatzeko ibilbide ederrak ezaugarritu ditugu.

Txakolin Eguna:

- Getaria (urtarrila)
- Bakio (martxo)
- Larrabetzu (martxo)
- Aia (apirila)
- Amurrio (maiatza)
- Lezama (maiatza-ekaina)
- Okondo (uztaila)
- Zarautz (abuztua)
- Balmaseda (urria)



SAGARDOAREN LURRALDEA

Sagardoa Euskal Herriko baserri askotako edari tradizionala izan da mende mende. Gaur egun, arrakasta handiko esperientzia enogastronomikoa bihurtu da, upelgetia bisitatu ondoren, sagardotegietan egiten den dastatzea. Sagardoa kipeletik zerbitzatzen da zuzenean, bakailao-tortillan eta idi-tuletan oinarritutako menu tipikoekin lagunduta.



- Sagardo Egunak:**
- Usurbil (maiatza)
 - Astigarraga (iraila)
 - Hernani (iraila)
 - Donostia (iraila)



ANTOLATU ZURE BIDAIA

NON JAN / NON EROSI /
NON LO EGIN / ZER BISITATU

Grand Tourra egiten ari zarela jatek on baten bila zabilza, indarberritzeko? Enoteka edo txakolindegi bat, agian, gure ardoetako bat probatzeko? Edo gourmet-denda bat, oroiarri bat erosteko? Hori guztia eta gehiago egin dezazu, **euskadigastronomia.eus** webgunean eskaintza zabala aurkituko duzu, kalitatez onena bermatuta.



- euskadigastronomia.eus** webgunean, euskaldunek itsasoarekin duten harremana bizitzeko (eta dastatzeko) hainbat aukera dituzte: bisita gidatuak upelgetietara eta beste enpresa ekoizle batzuetara, jaki-dastatzeak, ardo-dastatzeak, museoak, lantegi gastronomikoak, baita itsas itteera bat ere, museo bihurtutako arrantzontzi batean.



EUSKAL KOSTALDEAREN 10 EZINBESTEKOAK



1 / Bizkaia Zubia

"Zubi esekia" ere esaten zaio, 125 urteko historia duen perla arkitektonikoa da, Gizadiaren Ondare izendatu zuten, eta, gaur gaurkoz, funtzionatzen jarraitzen du. Pasarela panoramiko izugarria dauka.

2 / Plentziako badia

Atsedean hartzeko tokiak, Erdi Aroko herribildua eta jende guztia erretzeko turismo-eskaintza zabala: mendi-ibilik itsaslabarretan, hondartzak, eta, are, urpeko bodega! Gainera, metroz irits daiteke bertara.

3 / Gaztelugatxe ermita

Euskal Kostaldeko tokiarik enblematikoenak. Lehenengo postuan dago Espainiako mirari naturalen zerrendan. Marinelak babes-bila igotzen ziren, lanera joan aurretik; oraindik ere bizirik dagoen ohitura. Kanpaiak ere bere historia dauka...



6 / Euskal Kostaldeko geoparkea

Mutriku, Deba eta Zumaia amildegiak dagoen flyschak (miliolika urte dituzten formazio geologikoak) markatutako paisaia ikusgarria, oinez edo itsasontziz bisitatu daitekeena.



7 / Getaria: Elkano eta Balenciaga

Elkanoren (munduaren inguruan nabigatu zuen lehenengo marineleren) eta Balenciaga jostun bikainaren jaioterri eder-ederra; besteren artean, parrilan egindako arrainengatik, txakolinengatik eta "arratoi" batengatik ere ezaguna.

10 / Txingudiko badia eta Hondarribia

Paradisu ornitologikoa eta ingurune ezin hobe Hondarribiaren eta Hondarribiaren artean jarduerak nautikoak egiteko. Erdi Aroko hiria da Hondarribia, eta mimo handiz gordetzen ditu bere itsas-, gastronomia- eta paisaia-ondareak.



ITSASOA- REKIKO GRINA



Kultura gutxi izan dute euskal kulturak bezain harreman berezi, iraunkor eta konprometitua itsasoarekin. Euskal herritarrek aitzindariak izan ziren balearen ehizan. XI. mendean, jada, teknika eta ontzi espezializatuak garatu zituzten, eta balearen arrantzan ospe handia lortu zuten. Tenuan ere ibili ziren baleak ehizatzen. XV. mendean, euskal arrantzaleak Islandiako ur hotzetara itzuli ziren bakailaoa arrantzatzera. Jarduera horiek itsas zabaleko arrantzaren aitzindari bihurtu zituen, eta adituak arrantzaturikoa kontserbatzeko teknikenak.

Itsas tradizio hori funtsezkoa izan zen historiaren aztarna utzi zuten nabigatzaile handiak sortzeko. Horien artean, Juan Sebastian Elkano getariarra nabarmendu nahi dugu, 1522an lehen mundu-bira osatu baitzuen. Gaur egun, itsasoarekiko grinak bizirik dirau traineru-erropadetan, bertako ahalgintaren eta harrotasunaren ikur direnetan.

Euskaldunen itsasoarekiko zaletasun tradizional hori kostaldeko hainbat herritan egiten diren zaiandarien jaietan -kamenetan, madalenetan, sanpedroetan...- ere islatzen da.



Maila guztietako surflarietarako 50 urautsi baino gehiagorekin eta SURFING EUSKADI klubean integratutako surf-zerbitzu profesionalen eskaintza handiarekin, Europako surf-helmuga nagusietakoak da Euskal kostaldea, ikasteko, praktikatzeko edo, besterik gabe, itsasertetik ikusteko.

XIX. mendearen amaieran, Europako errege-erreginek, aristokratek eta burgesek helmuga turistiko bihurtu zuten Getxotik Biarritzera bitarteko kostaldea, itsasertzaren edertasunagatik eta, esaten zenez, zituen ezaugarri terapeutikoengatik.

Gaur egun, hiri-hondartza dotoreak ditugu, baita itsaslabarren azpiko haretza basatiak, familientzako edo surf egiteko hondartzak, ilunabarraz gozatzeko edo, besterik gabe, eguzkitan etzateko hondartzak, eta abar ere.

JARDUERAK

246 km-ko kostaldean, Euskadik 40 hondartza, 50 surf-olatu, 20 kirol-portu eta itsas turismoko 100 enpresa baino gehiago ditu, planik onenak egiteko: txangoak itsasontzian, ontziak alokatzea, zetazeoak ikustea, urpekaritza, arrantza, surfa, supa, arrauna, kayak, itsaslabarretatik ibilaldiak eta abar. Aukeratu zurea!

EUSKAL KOSTALDEKO MUSEOAK



Dozenaka museoak zaintzen eta erakusten dute ondare hori. Badira antzinako itsasontziak berregiten dituzten erromantikoak. Bai eta arrantzaleen oroitzenak gordetzen dituzten etxeak ere. Gizadiaren Ondare den zubi eseki bat. Historia barmutik argitzen duten itsasargiak. Marrazoak, dortokak, arrainak eta koloretako basoak. Denetarik museoak: itsasoak, ontzienak, erromatarak, eta txakolinarenak!



Maila guztietako surflarietarako 50 urautsi baino gehiagorekin eta SURFING EUSKADI klubean integratutako surf-zerbitzu profesionalen eskaintza handiarekin, Europako surf-helmuga nagusietakoak da Euskal kostaldea, ikasteko, praktikatzeko edo, besterik gabe, itsasertetik ikusteko.

